



Giza Liburutegiak
2018

ELURPEKO
LOREAK

KARMELE OSSA

GIZA LIBURUTEGIAK 2018

Pertsona bakoitza liburu bat da. **“Giza Liburutegien”** bitartez kultura eta bizipen desberdinak ezagutuko dituzu.

“Giza liburutegiak” Kopenhagen 1993 urtean sortu zen proiektu bat da. Saio hauen helburua diskriminazioa murriztea da, desberdintasunari balorea emanaz eta elkarrizketa eta tolerantzia bitartez, bizitza estilo edo kultura desberdinetatik datozen pertsonenganako ulermena bultzatzen da, ikaskuntza sustatuz.

Saio bakoitzean parte hartzaileak taldean esertzen dira eta aurkezpen eta elkarrizketa gurutzatuak burutzen dituzte. **“Giza Liburutegien”** protagonistak euren kontakizunak partekatzen dituzte, elkarrizketa eta harremanen bitartez. Honela hizlaria **“liburu”** bilakatzen da eta entzulea berriz **“irakurle”**.

Karmele Ossa eskertu nahi dugu “Asociación Cultural Tibetana Atisha” elkartearen eskutik etorri izanagatik bere esperientzia partekatzera. Eskerrik asko zuen ekarpenarengatik.

Kontakizuna testura moldatzea: Kattalin Miner

Elurpeko loreak

Karmele Osak Indiako iparraldean emakumeentzako hezkuntza bermatzen duten hainbat proiekturen gertuko ezagutza du. Horiek abiapuntu hartuta, “Elurpeko loreak” istorioa kontatu du.

“Nire istorioaren izena “Elurpeko loreak” da, izan ere, emakumeak baitira elur azpian latente dauden haziak, eguzkia irtetean, elurra urtu eta lore bilakatzen direnak. Lore horiek atera ahal izateko eguzki hori, geure babesa, laguntza, elkarlana eta elkartasuna dira.

Munduko hainbat lekutan gertatzen den egoera erreal bati buruz hitz egingo dizuet, zehazki, zuzenean ezagutzen dudana istorio bati buruz.

Himalaiako mendikatean kokatzen da, iparraldeko gune batean, puntutxo gorri honetan (mapa seinalatuz). Himalaia zortzi herrialdeetan barrena luzatzen den mendikatea da: Afganistan, Pakistan, India, Nepal, Tayikistan, Txina eta Birmania. Baina geu, zonalde honetan kokatuko gara, hain zuzen, Himachal Pradesh izeneko eskualdean. Zonalde hau Tibetekin mugakidea da (nahiz eta gaur egun Txina dela dioten, Tibet da).

Emakumezkoak dira Himalaiako landa-eremuetako zutarriak, baina hala ere, zailtasun handiei egin behar izaten die aurre. Familia-bizitzaren bizkarrezurra izateaz gain, sarri, landan lan eginez familiaren sostengu nagusia ere badira.

Bazterkeria sozial tradizionala dela eta, emakumeak oso zaugarriak dira, oraindik asko ezkonarazten dituzte eta beste hainbat gauza, eta oso itxaropen baxua dute haientzat. Eskola derrigorrezkoa izanik ere, eskola-uzte maila handia dago, hain zuzen, amek umeak izatean, neskak baitira gainerako umeen zaintzaz zein etxeko lanez arduratu behar dutela-eta, eskola uzten lehenak. Beraz, derrigorrezko eskolaratze hori ez da betetzen. Hala, eskola utzi ostean, bizitza hobetzeko itxaropena oso baxua da.

Bestalde, legeek nesken itzartutako ezkontzak debekatzeko dituzte, baina errealitatea bestelakoa da. Gainera, neska bat ezkontzen dutenean, dotea oso garestia da. Behin ezkonarazi ostean, gizonaren familiaren parte izaten dira, eta hor amaitzen da istorioa.

Ezaguna da, hiri handietan nesken jaiotzaren gaineko kontrola dagoela, eta kasu askotan, abortuak eginarazten dizkietela neskez haurdun dauden emakumeei. Nik pertsonalki emakume asko ezagutzen ditut ospitale batean ekografiak egiteari edo erditzeari ezezkoa esaten diotenak, haurra neska izan eta haurdunaldia arriskuan jartzearen beldurrez.

Orduan, gu geu bizi garen hemengo mendebaldeko testuingurutik begiratuta, emakumeen ahalduntzeaz aritzen garenean, hemen, formatuta dauden emakumeez ari gara, hezkuntza edo lan mundura sarbidea izan dutenez. Baina beste herrialdeetan ahalduntze horretaz mintzatzeko bagara, kasu honetan Asian, esan behar dugu, ahalduntze handiena hezkuntzaren bitartez hartuko dutela, legedian jasota dagoena, baina betetzen ez dena.

GKEak normalean, biztanle gehien dauden guneeetan ezartzen dira, baina urrun dauden gunek nahiko ahaztu eta babesgabe geratzen dira.

Beraz, nire desira zuekin benetako istorio bat trukitzea da eta testuinguru desberdin hauek ikusaraztea, eta edozein gizarteren garapena, eta zehazki emakumeena, gehien bermatu dezakeena hezkuntza dela kontatzea. Horrek zera esan nahi du: hezkuntza hori, haien inguru, kultura eta balioetan oinarritua izan behar dela. Ezin dugu, esaterako, Indiara geure premisa, bizitzeko era, edota, adibidez, laizismoaren ideiarekin joan.

Zerbait badute Indian, mundu osoko kultura eta erlijioak dira. Eta dudarik gabe, zerbaitek ez badie haien bizitza hobetzen uzten, hori ez da erlijioaren errua. Haientzat erlijioa babesa da, oinarri bat, eta mundu osoak elkarren arteko begirunea du.

Orduan, esaterako, geure elkartetik monasterio baterako babesa lortzea zein zaila den egiaztatu ahal izan dut. Horregatik, emakume hauek zein nolako onurak dituzten ikusarazi nahi dut. Emakume batzuk, zeinak landa-eremukoak izanda, haiek eskatu duten monasteriora joan ahal izatea, haien tradiziozko kulturaren hezteak; zehazki, Himalaiako emakumeentzako monasterio budistaz ari naiz.


Pondako emakumeentzako monasterioko ikasleen esperientzia ekarri dizuet. Pondakoa, Indiako emakumeentzako lehen tibetar monasterio budista da.

Hona, emakumeak haien borondate eta eskakizunez joaten dira eta sekulako aukerak dituzte. Ingelesa, tibetarra, filosofia, matematika, informatika, artea eta Himalaiako medikuntza ikasten dituzte eta pixkanaka, ospea hartzen dute. Azken batean, emakume askatuak dira, inork ez ditu indarrean ezkonaraziko, eta hartzen dituzten konpromiso eta botoak borondatezkoak dira.

Egunen batean, behin libreki monasteriora sartu ziren bezala uztea erabakitzen badute, haiekin komunitatean balio handia duen ezagutza eta aberastasuna izango dute.

Duela hiru urtetik, 27 urte dituzten zaharrenek, monjeekin filosofia eztabaidetan parte hartzen dute. Eta hauexek dira ondoren irakasle bilakatuko direnak, beste neska batzuen bideratzaile, eta era berean, haiek beste batzuenak, katea eten gabe. Guk nahi dugun bakarra, haiek, nahi duten hori izan ahal izatea besterik ez da.

Hauek dira elurpean dauden loreak, eguzkia noiz aterako zain”.



G I Z A
L I B U R U T E G I A K
2 0 1 8
B I B L I O T E C A S
H U M A N A S



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural